

Bretoiera: hizkuntza gutxitua kinka larrian

Jon Artza Bikandi

Soziologian lizentziatua (UPVjartza@euskaltzaindia.eusEHU).

Euskaltzaindiko Argitalpen zerbitzuko eragilea

jartza@euskaltzaindia.eus

Sarrera-data: 2016-07-21 | Onartze-data: 2016-08-23

Laburpena. Laburpena: Bretoierak hiztun galera izugarria izan du azken mendean. Galera horretan funtsezkoa izan da Frantziako Estatu Modernoaren sarrera eta bilakaera. Gaur egun, testuinguru sozio-politikoak apur bat hobeagoa bada ere, oso zaila egiten ari da bretoiera berrindartu eta normalizazio prozesuan abiatzea. Datuak aurkeztu eta honen zergatiak azaltzen saiatuko naiz etorkizunerako gako batzuk ematearekin batera. • **Hitz gakoak:** *Bretainia, Bretoiera, Frantzia, hizkuntza gutxitua, hizkuntza transmisioa.*

Abstract. Breton has seen a huge fall in the number of speakers over the last century. The emergence and evolution of the Modern French State has played a crucial role in that loss. Nowadays, even if the socio-political context is slightly better, it will be very difficult to strengthen Breton again and embark on a normalisation process. I will be presenting the data and trying to explain the reason for this as well as providing some keys for the future. • **Key words:** *Brittany, Breton, France, minority language, language transmission.*

1. SARRERA

Artikulu honen helburua bretoieraren gaur egungo egoera aztertzea da. Bretoi hizkuntzari buruz irakurtzen hasi naizenean konturatu naiz zaila da materiala eskuratzea. Euskaraz gutxi dago, gaztelaniaz ere asko ez eta Frantzia zein Britainian bertan ere ez ditut azterketa soziolinguistiko gehiegi aurkitu. Euskararekin konparatzen badugu alde ikaragarria sumatu dut. Hizkuntza honi buruz zenbait ideia orokor dauzkagu; entzuna da egoera larrian dagoela, adibide bat ematearren euskara baino datu soziolinguistiko eskasagoak aurkezten dituela, eta ez hain aspaldi hiztun asko zituela. Hori guztia aztertzen saiatuko naiz, modu orokorrean galeraren arrazoi nagusiak aztertzetik hasiko naiz, eta jarraian dauden datu soziolinguistikoak aurkeztu eta horrekin batera etorkizunari buruz gogoeta egiten.

1992ko Europako Kontseiluko Europako eskualdeetako hizkuntza edo hizkuntza gutxien Kartaren arabera, hizkuntza minorizatua zera da:

- Estatu bateko eskualde edo erregio baten mintzo den hizkuntza, hiztunak beti ere Estatu horretako biztanleak baino gutxiago izanik.
- Estatuko hizkuntza ofizial desberdinak.

Hizkuntza minorizatu ugari dago Europan. Definizio horretan sartzen dira katalanera (6 milioi hiztun inguru) eta askoz egoera larriagoan dagoen bretoiera. UNESCOk 2003an egindako txostenaren arabera 9 faktore aztertuz ondorioztatu dezakegu hizkuntza bat galzorian dagoen ala ez. Bretoieraren kasuan faktore batzuk bete-betean eragiten diote: transmisioaren etena, hiztunen zahartzea, hiztun kopuru oso baxuak eta abar. Faktore hauek aintzat hartuko bagenitu, bretoiera arrisku larrian dela esango genuke. Eta UNESCOk berak horrela dio, galtzeko arrisku handia duten taldeetan sailkatuz.

Zorionez badira ezaugarri baikorrak: populazioa hizkuntza sustatzearen alde egotea, ikasteko materialak eta espaziok izatea, hizkuntza idatzia, estandarizatua eta arautua izatea, bretoieraren aldeko hizkuntza politika izatea, eta abar. Datu hauek aintzat hartzen baditugu, pentsa dezakegu hizkuntza ez dela sekula desagertuko, beti egongo baita bretoiera sustatuko duen populazioaren zati bat, hizkuntzarekiko hurbilagoa dena. Adibide gisa, gaur egun 16.000 haur eta nerabe baino gehiago hezkuntza eredu elebidunean ikasten ari da. Besterik da, izango duen indarra eta dinamismoa eta horretan ezin gara oso baikorrak izan. Ematen du, epe labur-ertainera bretoiera oso hizkuntza ahula izango dela,

***Ematen du, epe
labur-ertainera
bretoiera oso
hizkuntza ahula
izango dela,
inguru
geografiko
mugatuan eta
testuinguru jakin
batzuetan
erabiliko dena.***

**XX. mendearen
bigarren
erdialdean
dialektoetatik
harago hizkuntza
amankomun eta
batu bat
ezartzeko
ahaleginak egin
dira.**

inguru geografiko mugatuan eta testuinguru jakin batzuetan erabiliko dena.

1.1 Beste datu batzuk

Hizkuntza familien ikuspegitik Bretoiera hizkuntza zeltikoa da. Hauen artean bi multzo handi bereiz daitezke: lehenengo taldea irlandera, eskoziera eta Mann uharteko hizkuntzak osatzen dute; bigarren taldea ordea, galesak, Kornuallesko hizkuntzak eta bretoierak berak.

Kristo aurreko (k. a.) VI. Mendean Britainia Handiko mendebaldetik Armorikara etorritako jendeak zabaldu zuen hizkuntza Frantziako mendebaldean, Ozeano Atlantikora sartzen den penintsula honetara.

Bretoierak aspalditik datorkion tradizio literarioa dauka. Aurkitu den testurik zaharrena, VIII. mendeko medikuntza arloko tratatu bat da, lau orrialdekoa. Ideia bat egin dezagun testu hau frantsesez idatzitako lehenengo testua baino aurreragokoa da. V. mendetik XI. mendera doan garaian Bretoiera Zaharra deitzen zaio. Aldiz, XII. mendetik XVII. mendera doan garaian Erdi Bretoiera, eta mende hauetan antzerki eta olerki lan ugari aurki ditzakegu. Horrezaz gain 1464an, Frantses-Bretoi-Latin lehen hiztegia paratu zen, bai bretoieraz bai frantsesez idatzi zen lehenengo hiztegia. XVIII eta XIX. mendeak trantsizio garaia bezala kontsideratzen dira eta batez ere testu erlijiosoak argitaratu ziren. 1839an *Barzhaz Breizh* argitaratu zen, askoren ustez bretoieraz idatzi den lehen saio literario modernoa. XX mendeko lehen erdian ahalegin handiak egin ziren bretoiera hizkuntza modernoa izan zitekeela frogatzeko. Terminologia eta lexikografian esfortzu handiak egin ziren eta 1925ean lehen aldizkari literarioa sortu zen *Gwalarn*. Horrekin batera, XX. mendearen bigarren erdialdean dialektoetatik harago hizkuntza amankomun eta batu bat ezartzeko ahaleginak egin dira.

XVI. mendera arte independentea izan zen Britainiako Dukerrria eta 1789 arte autonomia izan zuen lurraldea ez dator bat gaur egungo Frantziako banaketa administratiboarekin. Gaur egun Frantziaren baitako Britainiako Eskualdeak 4 departamendu hartzen ditu: Finistère, Côtes-d'Armor, Morbihan, eta Ille-et-Vilaine. Hortik kanpo geratzen da Nantes eta bere ingurua biltzen duen Loira-Atlantique departamentua, Loirako Herrialdeen Eskualdean integratua baitago, nahiz eta britainiar abertzaleek bere lurralde gisa aldarrikatu. Banaketa administratibo hau aintzat hartuz hiru milioi pasatxo biztanle bizi da Britainia eskualdean eta Loira-Atlantique kontuan hartzen badugu 4 miloi biztanle pasatxo izango lirateke.



2. GALERAREN ARRAZOIAK

Bretoieraren galera duela mende batzuk hasi zen. XV mende bukaera eta XVI mende hasieran zehar Britainia Frantziako erresuman integratu zen eta hasieratik frantsesa sustatzeko erabakiak hartzen hasi zen Frantziako monarkia. Hau horrela izanik, Britainiak oraindik hainbat alokretan nahiko subirano izaten jarraitzen zuen, eta britainiar hizkuntza ere ez zen erasotuegia izan. Ia lau mende geroago Frantziako Iraultza (1789) izan zen eta honek Estatu-nazio modernoaren sorrera ekarri zuen. Ordura arte Britainiak beste lurralde batzuekin batera nolabaiteko autonomia izan zuen. Hainbat lurralde Parisen zegoen errege-gorteak zuzenean gobernatzen bazuten ere, beste eskualde batzuetan, tartean Britainia, erakunde propioak ere baziren. Frantziako Iraultzak askatasuna, berdintasuna eta anaikidetasuna aldarrikatzen zuten. Berdintasunaren ikuspegitik eskualdeetako egitura politikoak desegin behar ziren “privilegioekin bukatu”. Frantziako hiritar guztiak egitura juridiko-politiko bakarraren pean egon behar zuten, hiritarren borondatek eratoritzen zena, bestelako egitura juridikoak Antzinako Erregimenarekin lotzen zituzten. Jakobinismoak hizkuntza aldetik ere eragin zuen, Frantziako hiritar guztiak hizkuntza bakarra behar baitzuten elkar-ulertzeko, frantsesa alegia.

**XX. mende
hasierara nahiko
sendo iritsi zen
bretoiera.
Populazioaren
gehiena botere
guneekiko
harremanetatik
urrun bizi zen,
bizimodu
tradizionala
zeraman eta
eskola baino,
erreferentziazko
erakundea eliza
katolikoa zen.**

Honi gehitu behar zaio XVIII eta XIX. mendeetan Frantsesa Europako Gorteetako hizkuntza nagusia zela, “Lingua Franca” kontsidera genezakeen. Jean-Louis Calvet-en ustez, hori bi arrazoi nagusigatik zen: alde batetik frantses hiztunak kopuru absolututan, aleman eta ingeles hiztunak baino askoz gehiago ziren mende horietan. Bestalde, Frantzia Estatu bateratu eta zentralizatu bat zen garai horretarako, Italian adibidez gertatzen ez zena. Kontuan hartu behar da ere garai hartako Frantzia potentzia ekonomiko handia zela (Calvet 1987).

Hala ere, eta agintarien asmoa hori izan bazen ere, Francis Favereauren ustez, Frantziako Iraultzak hasiera baten ez zion kalte handirik egin bretoi hizkuntzari: “Ce n’es pas que la Révolution française ait provoqué une rupture brutale dans un premier temps.” (Favereau 1994). Antzinako Erregimenean bezala, botere berriek frantsesetz ematen zituzten mandatuak, herri xeheari parrokiako errektoreak beraien hizkuntzara (bretoia, euskara) itzultzen zien igandeetako predikuen bidez. Beraz, hein baten bitartekari lanak egiten zituzten elizgizonak botere zentral frantses, eta eskolatua ez zen herri xehearren artean, eta kopuru absolututan nabarmen ziren hauek gehiago. Badago bretoi esaera tipiko bat harreman hau oso ongi irudikatzen duena:

ar brezhoneg hag ar feiz a zo brear ha c’hoar e Breizh (bretoiera eta fedeak anai-arrebak dira Bretainain.

Ondorioz XX. mende hasierara nahiko sendo iritsi zen bretoiera. Populazioaren gehiena botere guneekiko harremanetatik urrun bizi zen, bizimodu tradizionala zeraman eta eskola baino, erreferentziazko erakundea eliza katolikoa zen. Horrela gauzak, orduko datuak dira Behe-Bretainian populazioaren erdia elebiduna zela (frantsesa-bretoia) eta beste erdia bretoi elebakarra. Mende hasieran milioi bat hiztun izango ziren, Behe-Bretainiako populazioaren %90a www.ethnologue.com/language/bre web gunearen arabera. Egia da batez ere edadeko herritarrek eta nekazaritza eta arrantza eremuetan hitz egiten zela, baina egia da ere tradizio literario handiko hizkuntza zela eta modernizatzeko lehen urratsak ematen hasiak zirela. Hala ere, ordutik aurrera belau-naldien arteko transmisioaren galeran sakontzen da eta horrekin batera hizkuntzaren benetako galbidea hasi. Ez da prestigioazko hizkuntzat hartzen eta frantsesari lehentasun osoa ematen zaio. Ipar Euskal Herrian gertatu den bezala, Frantziako Estatu demokratiko jakobinoa Espainiako diktadura baino eraginkorragoa izan zen Estatuko beste hizkuntzak zapaltzerako orduan. Frantsesari aurrerapenaren eta modernitatearen irudia eman izan diote, beste hizkuntzak sinismen, iluntasun eta

idea atzerakoiekin lotuz. Horretarako, jakina, hainbat neurri erabakigarri hartu izan dira, administrazioan, hezkuntzan eta abar. Esan dezakegu bretoieraren galeraren arrazoi nagusia kapitalismoren garapena eta Frantziako estatu burgesaren aparatua eta mekanismoen ezarpenean aurkitu behar dugula. Honela azalduko digu Joxe Manuel Odriozolak:

Bretainia, kapitalismoaren oihartzunak zeharkakoak eta erabatekoak ez ziren bitartean, bretoieradun izaten jarraitu zuen. "Aurrerapenak" ordea, kontradikzio gaindiezin batetan murgildu zuen bertako hiztulegoa: produkzio moduen aldakuntza eta garapenak hizkuntzaz aldatzea zekarren berarekin "atzerapen" gorrian geratuko ez baziren. (Odriozola 1987).

Arestian esan bezala, bretoieraren lehen atzerakada nabarmena XX. mende hasieran izan zen. Frantziako III. Errepublika eskualdeetako hizkuntzen aurkako neurriak hartzen joan baitzen, Frantzia bakarra eta batu baten ispiritu nazionala aldarrikatu eta sustatu nahi zuten administrazio zentraletik. Lehenbizi Jules Ferry ministroaren eskutik 1880-1887 bitartean onarturiko legeek, Frantzian derrigorrezko hezkuntza elebakarra ahalbidetuko dute. Honako hau esaten zuen lege horietako artikulua batek: "le français sera seul en usage dans l'école". Honetaz gain, 1902an Combes ministroak bretoieraren gehiegizko erabilera ekiditeko debeku-dekretua argitaratu zuen. Modu horretan bretoiera eskola publikotik erabat kanpo geratu zen. Hala ere, herritar askoren eskola ibilbidea nahiko laburra izaten zen, emakumeena batik bat. Honi gehitzen badiogu doktrina oraindik ere jatorriko hizkuntzan erakusten zela, dekretu hauen eragina ez zen hain bortitza izan. Elizak, bere mezua herritar xeheen artean zabaltzeko asmo horrekin, bere etsai "naturala" izan den botere errepublikarraren aurka aritu izan da. Zentzu horretan, herritarrengan aise errazago hurbil zitezkeen beraien eguneko hizkuntza erabiliz. XX. mendea aurrera joan ahala eta laizismoaren aurrerakadarekin batera elizaren eragina asko jaitsiko da, kasu honetan Bretoi hizkuntzaren kalteko.

Bestalde, José Antonio Rubio Caballero irakasleak esango du XIX. mende bukaeran Bretainian ematen den mugimendu proto-abertzalea oso ahula dela, eta nahiago duela iraultza soziala ekiditu Bretainia Frantziatik bereiztea aldarrikatzea baino. Burgesia klase txikia zegoen, eragin gutxikoa eta eskaera identitarioek erakarri ez zutena, besteak beste, Estatu zentralak asko estimatzen zuten aukera eta merkatu berriak eskaintzen zuelako.

En cualquier caso y por todo lo dicho, la historiografía bretonista, desatendida por la burguesía más dinámica y privada de acceso a los más poderosos

**Bretoieraren
lehen atzerakada
nabarmena XX.
mende hasieran
izan zen.
Frantziako III.
Errepublika
eskualdeetako
hizkuntzen
aurkako neurriak
hartzen joan
baitzen.**

**Frantziako
Iraultza
hizkuntzaren
galeran mugarri
den bezala, bi
Mundu Gerrak
ere erreferentzi
oso
garrantzitsuak
dira.**

canales de divulgación, acabaría enroscada en los círculos eruditos, atrincherada en el dolor autocomplaciente y en la añoranza de episodios literal y metafóricamente irrepetibles (Rubio Caballero 2013a).

Frantziako Iraultza hizkuntzaren galeran mugarri den bezala, bi Mundu Gerrak ere erreferentzi oso garrantzitsuak dira. Bi Gerra hauetan Frantziako nazionalitate desberdinetako herritarrek elkarrekin borrokatuko dute, lehenbizi etsaiaren aurka eta ondoren okupatzaileen aurka. Gainera garaile irtengo dira eta horrek Frantziar nazioaren espiritua izugarri indartu eta zabalduko du Estatu osoan. Frantziar nazioaren handitasuna eta gorentasuna lau haizeetara zabalduko da, eta horrek asimilazioari bideak erraztuko dio. Datu sinple bat adibide gisa, Lehen Mundu Gerran hildakoengatik Ipar Euskal Herrian ezarri ziren oroitarriak euskaraz daude, Bigarren Mundu Gerran hildakoengatik, ostera, frantsesez. Mentalitate horrek XX. mendearen bigarren erdi ondo pasa arte sendo iraungo du.

Bestalde, Lehen Mundu Gerraren ondoren garraioak asko hobetu ziren, horrek mugikortasuna asko suspertu zuen eta ordura arte oso isolatuak egonak ziren bretoiera mintzodun lur eremuetara jende asko erakarri zuen, jakina bretoi hizkuntza ez zekitenak. Honi gehitu behar zaio garai honetan derrigorrezko soldadutza ezartzen dela. Eskualde desberdinetako gazteak gudarostean denbora bat eman beharko dute eta elkar-ulertzeko nahi eta nahi ez frantsesez mintzatu.

II Mundu Gerran eta Alemaniaren okupazioaren ondoren, Vichy-ko gobernu kolaborazionista hizkuntza erregionalekiko hurbilago agertu zen. Beraien helburua Frantziako eskualdeetako herritarren atxikimendua lortzea zen, nazio handia (Frantzia) eta nazio txikiaren (Eskualdeak, Britainia kasuko) kontzeptuak sustatuz.

En cuanto al regionalismo conservador, más cercano a la Iglesia y notables provinciales, vivió una segunda juventud. Cercano a Vichy, obtuvo de Pétain algunos de sus antiguos objetivos, relacionados con la rebretonización de Bretaña. (Rubio Caballero 2013b, 92 or.).

Zenbait abertzalek bretoik ere nazismoaren aldeko joera agertu zuten. Honi buruz asko idatzi da eta nolabait britainiar abertzaletasunaren - eta hizkuntzarena ere zeharka- irudia asko kaltetu zuela esan dezakegu. Britainiako hainbat herritarrek erresistentzian ere parte-hartu zuten baina irudimen kolektiboan kolaborazionista ideia hori geratu da, nahiz eta honen gainean ñabardura asko egin daitezkeen. Lehenbizi esan behar da britainiar abertzaletasuna orduan ere oso ahula zela, ez zuela

eragiteko ahalmen handiegirik. Jose Antonio Rubio Caballero irakasleak nazismoaren eta EMSAV mugimendu abertzalearen hartu-emanak ikertu ditu eta hiru ardatz edo arrazoi nagusi eman ditu.

1. Arrazoi ideologikoak. Abertzale batzuk iparraldeko arrazen gorentasuna aldarrikatuko dute, bestelako arraza eta etnien aurrean. Germaniarrak zelten lehengusu gisa hartuko dituzte eta gidaritza beraien esku jarriko dute, nazio bretainiarra ito duen Frantziaren aurka. Nazien antzera, liberalismoa, sozialismoa eta inmigrazioa gaitzetsiko dute:

(...) la idealización de sus míticos orígenes y raciales. Autoproclamados celtas los primeros y arios los segundos, ambos movimientos se embriagan de leyendas neorrománticas que justifican sus proyectos políticos (Rubio Caballero 2013a).

2. Arrazoi estrategikoak. Aurrez aipatu dugunez EMSAV mugimendua eta oro har abertzaletasuna oso ahula zen Bretainian. Bertako elite ekonomiko eta sozialak oso Frantzia zaleak ziren, aldiz nekazariak abertzaletasunetik urrun zeuden handikien erabat menpekoak. Mugimendu honek izan zuen indar apurra hirietako intelektual giroan zeukan, sektore dinamikoetatik urrun. Hargatik, Alemanen aldeko hautuak egiteak bestela ezinezkoa izango litzatekeen burujabetza lortzeko bide gisa ikusten zuten "(...) el obtener para Bretaña una compensación en forma de estado soberano, aunque tutelado" (Rubio Caballero 2013). Horrelako aukerarik nekez suertatuko zitzairen berriro, Alemaniaren gorakadak nazioarteko ordenu berria ekarriko zuen eta testuinguru horretan Bretainiak izan zezakeen aukera ezin zen alperrik galdu.

3. Arrazoi praktikoak. Frantziar gudarostean preso hartzen zituzten soldaduak bretainiarrei aukera ematen zitzairen askatasuna berreskuratzeko, baldin eta abertzaletasun mugimenduarekin kolaboratzen bazuten. EMSAVeko buruek Frantziar gudarostean sartu eta gero preso hartzea uztera animatzen zituzten soldaduak. Jarraian bretoiak zirela esan eta askatuko zituzten baldin eta kolaborazionista zen Bre-taniako gudaroste liberatzailean integratuko zirela esaten bazuten.

Berriro esan behar da erresistentzian ere bretoi askok parte hartu zutela. Hala ere, aliatuek gerra irabazi eta liberazioaren ondoren, esan gabe doa Eskualdeetako hizkuntzekiko hurbilpen hau bertan behera geratu zela, debekuak eta zokoratzeak berrindartuz. Gerra ostean eta Estatu Batuetako eta Ingalaterrako laguntzarekin berreraikitze aroa hasi zen. Zerbitzuak eta industria garatu ziren batez ere Goi-Bretainian, Frantziako


**Gerra ostean
frantsesez mintzo
zen
Goi-Bretainiako
zentroa bihurtu
zen garapenaren
ardatza eta
motorra.**

beste lurraldeekin mugakide den eskualdean. Bertan garatu ziren administrazio- eta zerbitzu-gune nagusiak, Nantes eta Rennes Britainia historikoaren hirigune nagusien inguruan. Garapen berri honek eskulan kualifikatuagoa eskatzen zuen eta horretarako ematen zen prestakuntza osorik zen frantsesez. Beraz, frantsesez mintzo zen Goi-Bretainiako zentroa bihurtu zen garapenaren ardatza eta motorra, Britainiar penintsularen mendebaldean dagoen Behe-Bretainaren kaltetan. Etorkizun ho-beagoaren bila Rennesera joan behar zuen mendebaldeko gazteak frantsesa derrigorrez ongi menperatu behar zuen. Eskualde hauek, nekazal, abeltzantza eta arrantza eremuak ziren eta dira, bizitza molde tradizionalagoari lotuak, bertan mantendu da ondoen bretoiera. Hala ere, zentro-periferia harreman horretan zentroko dinamika, ohitura eta harremanak jaso ditu, besteak beste hizkuntzari dagokionez. Horrekin batera, II. Mundu Gerraren ostean Britainiatik kanpo zeuden baino bretoi jatorriko hainbat herritara bere jaioterrira itzuli ziren. Hauek hizkuntza galdua zuten, eta beraz kopuru absolutu zein erlatiboetan frantsesa indartu egin zen bretoieraren kaltetan.

Hurrengo hamarkadak Frantziar Nazioaren urrezko aroa markatuko dute. Mundu Gerran garaile irteteak, pairatutako galera eta sufrimendu amankomunarekin ispiritu nazionala hedatzea ekarriko dute eta Frantziarekiko atxikimendua gailurrean izatea. XX. mendea aurrera joan ahala sentimendu hau leuntzen hasiko da. Alde batetik deskolonizazio prozesuak, batik bat Argeliakoak, Frantziako estatuaren izaera menperatzaile eta basatia erakutsiko dut. Bertan izan ziren hainbat soldaduk sarraskiak eta basakeriak egin zituztela onartuko dute.

Bestalde mundua aldatuz doa, globalizazioak harremanen nazioartekotzea ekarriko du. Jada estatua ez da hain funtsezkoa eta bere esku-menetik kanpo garatzen dira dinamika eta prozesu gehienak. Orain arte zure herrialdeko hizkuntza hegemonikoarekin leku guzietara iristeko aukera bazegoen, orain eleaniztasuna faktore positibo gisa ikusiko da. Multikulturalitatearen balioa aldarrikatzen da, bestelako hizkuntza-gutxituak barne- ezagutzeak ez du hainbesterako ospe txarrik ekarriko, ez da gauza atzerakoi gisa ikusiko, aitzitik, aukera berria irekitzeko lanabes gisa kontsideratuko da. Gainera, beste hizkuntza gutxituen kasuan, hauen normalizazio bideak hizkuntza nagusiko elebazarren artean mehatxu sentipena sortu badu ere, ez da hori Frantziako kasua, non hizkuntza gutxituekiko eskakizun maila hutsaren hurrengoa den.

1. irudia: I. Mundu Gerraren ostean alsazierak, bretoierak eta korsikerak izan duten transmisioa (5 urtetik beherako umeei)



Iturria: Insee, enquête Famille 1999 et recensements.

Bretoi hiztunen transmisioa 1925 arte nahiko ongi eutsi bazion ere, ordutik aurrera etenik gabeko gainbeheran erori zen.

Aurreko irudi honek oso argi erakusten digu bretoi hiztunen transmisioaren bilakaera XX. mendean. 1925 arte nahiko ongi eutsi bazion ere, ordutik aurrera etenik gabeko gainbeheran erori zen. Aurreko mendeko azken hamarkadetan, kopuru minimo hori behintzat eutsi egin zaiola dirudi. Alegia, kopuru minimotan bada ere, bretoiera transmititzen da. Beste bi hizkuntzekin konparaketan apur bat sakonduz, alsazieraren gainbehera 60 hamarkadan hasi zen eta korsikerarena 40-50 hamarkada inguruan. Hala ere, datu hobeagoak aurkezten dituzte. Korsikerak %10 inguruan eusten ari zaio eta alsaziera %20an dago baina beherako joera nabarian. Kontuan hartu I eta II. Mundu Gerrek iraun zuten bitartean Alemaniak Alsazia okupatu zuela. Gainera 1871ko Gerra Franko-Prusiarretik 1918ra arte -Gerra bukatzearekin bat- Alsazia Alemaniaren esku egon zen.

**Inkesta
soziolinguis-
tikoak 270.000
hiztun biltzen
zituen
Bretainian,
populazioaren
%6,7. 15 – 20
urte bitarteko
gazteen artean
%2a baino ez.**


3. GAUR EGUNGO EGOERA ETA ETORKIZUNERAKO AURREIKUSPENA

3.1 Datu soziolinguistikoen azterketa

Duela mende bat Bretainiako populazioaren erdiak baino gehiago - Behe-Bretainian %90ak- hitz egiten bazuen ere (Costa, Karina; Sánchez Julio, 2012), azken ikerketen -1999ko datuak- arabera %10era ere ez ziren iristen bretoieraren hiztunak. Inkesta soziolinguistikoak 270.000 hiztun biltzen zituen Bretainian, populazioaren %6,7 (Observatoire de la langue Bretonne, 2007). 15 – 20 urte bitarteko gazteen artean %2a baino ez. Egiari zor bretoieraren bilakaeran soziolinguistikoaren gainean datuak urriak direla. Sinistezina dirudi hain urteren gutxian hainbeste hiztun galtzea, baina aintzat hartu behar da bretoiera mintzatzen dutenak oso edadetuak dira, eta ume eta gazteen artean oso ahula dela. Be-launaldien artean haustura bat ematen ari da, eta gaur egun bretoieraz mintzatzen diren gurasoen %20ak besterik ez die hizkuntza hurrengo belaunaldiei transmititzen (Argia, 2003).

Hauek datu nagusiak izango lirateke. Horretan sakonduz, 2007an Bretoieraren Bulego Publikoak egindako txostenean oinarrituz, hizkuntza- ren egoera hainbat alorretan aztertu dezakegu, honek ikuspegi zeha- tzagoa emango baitigu.

Alde nabarmena dago Goi-Bretainia eta Behe-Bretainiaren artean. Goi-Bretainian (ekialderago dagoena) bretoieraren presentzia hutsaren hu- rrengo baldin bada, Behe-Bretainian hiztunen presentzia esanguratsua- goa da. Hau historikoki horrela izan da, zenbat eta ekialderago bretoieraren presentzia urriagoa. Adibidez, ikuspegi historiko bat era- biliz, Bretainiako hiriburu nagusiak diren Rennes-en eta Nantes-en bre- toiera ez da azken mendeetan hizkuntza erabilienean izan. Departamentuei begiratzen badiegu, Finistère-n ematen da kopururik altuena, bai kopuru absolutuetan eta baita ehunekoetan ere. Departamendu horretan 135.000 hiztun daude, populazioaren ia %20a. Hala ere, adinari erreparatzen badiogu hiztunaren profila oso edadekoa da, 18-30 urte bitartean %5,9a soilik mintzatzen da bretoieraz.



**Gaur egun
gurasoen %3ak
soilik
transmitzen die
hizkuntza
beraien seme-
alabei**

Datuen iturria: l'INSEEk 1999an egindako inkesta

Grafikoa: egilea

Aurrez aipatu dugunez datu soziolinguistikoa oso urriak dira, baina Finistèreko departamenduan, 2014an beste inkesta bat egin zen eta aurreko tauletan emandako datuekin konparatzen badugu bilakera negatiboa argi eta garbi ikus dezakegu.

Adin tartea	l'INSEEk 1999	Conseil départementale du Finistère*
18-24 urte	% 4	% 2
25-34 urte	% 5	% 1
35-49 urte	% 10	% 1
50-64 urte	% 23	% 9
+ 65 urte	% 41	% 27

* Kopuru hau gaitasun osoko bretoiera hitzunei dagokie. Ezagutza apur bat dutenak aintzat hartuz portzentajeak apur bat hobeagoak lirateke.

Oso kezkarria den datu bat belaualdien arteko transmisioaren da. Soziolinguista denek esaten dute hizkuntza bat biziarazteko oinarritzkoa

dela. Horretan, bretoierak izugarrizko jaitsiera izan du. Gaur egun gurasoen %3ak soilik transmitzen die hizkuntza beraien seme-alabei (Observatoire de la langue Bretonne, 2007).

Hemen ere bilakaera oso negatiboa izan da, 1920an gurasoen %50ak transmititzen zien bretoiera beraien seme-alabei, 1980an ordea %5ak baino ez. Bilakaera honi buelta emateko ekimen gutxi abiatu dira. Horietako bat duela urte gutxi batzuk sortutako Divskovarn elkarte da. Momentuz Brest inguruan baino ez du funtzionatzen eta gurasoek seme-alabekin bretoiera erabili asmoz jarduerak antolatzen dituzte.

Ogibideei eta jardunbideei dagokienez, 1999ko l'INSEEk inkestak datu hauek erakusten dizkigu:

Lanbidea	Hiztunen ehunekoa
Nekazariak	% 30
Artisauak	% 14
Lanbide liberalak	% 7,6
Erdi mailako lanbideak	% 7,8
Langileak	% 13,9

Hizkuntzarekiko jarreraren ikuspegitik, esan daiteke bretoiak beraien hizkuntzaren aldeko jarrera dutela (% 92). Pentsatzen dute Bretainiaren oinarritzko ezaugarri bat dela eta beraz mantendu beharrekoa. Are gehiago, uste dute hizkuntza ez dela galduko, nahiz eta kasu honetan apur bat ezkorragoak diren, %72 inguruk uste baitute ez dela desagertuko. Hemen ere bada datu esanguratsu bat, 1991n %42ak uste baitzuen salbatuko zela. Alegia, hiztun gehiago zegoen unean hiritarren iritzia ezkorragoa zen. Hala ere, nire ustea da ezkortasun hor axolagabekeriarekin kidekatu daitekeela. 70-80 hamarkadara arte gizartean ez du ematen kezka larregirik dagoenik. Hamarkada honetan hasten dira hizkuntza irakasteko lehenen neurriak hartzen. Ordura arte, inongo eskolatan ez zen bretoiera irakasten. Hamarkada horretan hasten dira bretoierazko lehenengo ikasgaiak ematen. 90. hamarkadan eta 2000 urtetik aurrera bretoiera ikasten duten haurren kopurua handitzen joango da, nahiz eta hazkunde hau 80. hamarkadan izan zena baino motelagoa izango den (1999ko l'INSEEk inkesta).

Erabilerari buruz ez dut datu fidagarriak aurkitu. Iritzi batzuen arabera egunero 35.000 pertsona inguruk hitz egiten dute, batik bat sektore tradizionalen inguruan, nekazaritza merkatuetan adibidez nahiko erabilia da.

Hizkuntza politika

Bretoiera ez da hizkuntza ofiziala. Gaur egun inongo ofizialtasunik ez duen hizkuntza zeltiko bakarra da. Frantzia hizkuntza ofizial bakarra frantsesa da. 1999an Oficce Public de la Langue Bretonne (OPLB) sortu zen eta 2002an Bretainiako Eskualdeak eta Frantziako Estatuak elebitasuna sustatzeko hitzarmena sinatu zuten eta honen baitan bretoiera sustatzeko plangintza (2002/2006) garatu zen.

Alderdi politikoak beti egon dira bretoieratik urrun. Izaera estatalista dutenak, finean beraien helburua Bretainia frantsestea izan delako. Alderdi abertzale eta erregionalistek indar gutxi izan dute, eta gehienetan arrazoi pragmatikogatik frantsesera jo dute. Azken urteetan jarrera zertxobait aldatu da. 2004ko Eskualdeetarako hauteskunde kanpaina, lehenbiziko aldiz, Parti Socialiste (PS) eta Union pour un mouvement populaire (UMP) alderdiek bretoiera izan zuten hizpide eta beraien programetan ere hainbat puntu garatu zituzten hizkuntza politikaren inguruan.

Hemen ere departamentuaren arabera interesa eta bultzada oso bestelakoa. Departamentuko aurrekontutik 2,5 € biztanleko erabiltzen ditu Finistèrek, 50 zentimo Morbihan eta Côtes-d'Armor-ek, Ille-et-Vilainek ordea 9 zentimo eta Loira-Atlantiquek 3 zentimo baino ez.

2003an OLPBk bretoieraren erabilerari buruz Bretainia Eskualdeko 1.489 udalei galdetegi bat igorri zien. 369 udalek erantzun zuten hizkuntzaren alde zenbait neurri hartzeko prest zeudela: herriko eta errepideetako seinalizazioan, turismo gidatan eta abar erabiltzeko. 40 udalek beraien buletinetan artikuluan bretoieraz argitaratzeko prest zeudela adierazi zuten eta hauetako batzuetan (Lorient, Carhaix, Lannion, Pontivy, Pont-l'Abbe, Dovarnenez, Saint-Brieve eta Rennes) elebitasuna sustatzeko batzordeak eratu dira. Batzorde horietako kideak udal hautetsiak, teknikariak eta erreferentziazko elkarteak dira.

Aurrez esan bezala seinalizazioa elebiduna da zenbait hiri haunditan (Landerneau, Lorient, Quimper, Brest, Morlaix, Lannion, Guingamp eta Pontivy) eta erdi mailako beste hainbaten ere (Carhaix, Saint-Avé, Paimpol eta abar).

Carhaix eta Plescop udaletako webguneak bere osotasunean elebidunak dira eta beste hiri batzuetako (Brest, Landareau) webguneetako atal esanguratsuenak ere bi hizkuntzatan daude.

Carhaix eta beste udal batzuetan ezkontza-agiria, jaiotzea-agiria, familia-liburua eta tankerako hainbat dokumentu bretoieraz izateko aukera dago.

Bretoiera ez da hizkuntza ofiziala. Gaur egun inongo ofizialtasunik ez duen hizkuntza zeltiko bakarra da.

**Bretoieraren
sustapena eta
hizkuntza
politika oso
maila
desberdinekoa
dela udala eta
eskualdearen
arabera. Badira
inongo ekimenik
aurrera ez
daramaten
udalak eta
aitzitik esfortzu
garrantzitsu bat
egiten ari
direnak ere.**

**1980tik aurrera
bretoieraz
ikasten duten
ikasleen kopurua
handitu egin da,
baina hazkunde
hau motelagoa
da azken
urteotan.**

Beraz, oso argi dago bretoieraren sustapena eta hizkuntza politika oso maila desberdinekoa dela udala eta eskualdearen arabera. Badira inongo ekimenik aurrera ez daramatenak eta aitzitik esfortzu garrantzitsu bat egiten ari direnak ere. Hauek batez ere Finistère-ko departamentuan kokatzen dira, baita ere Côtes-d’Armor departamentuko mendebaldean eta Morbihan-go ipar-mendebaldean. Rennes hirian ere zenbait ekimen lantzen ari dira.

Eredu gisa Carhaix jarriko genuke. Aurrerago bertako Komunak egin-dako inkesta baten datuak azalduko ditugu, nire ustez oso adierazgarriak izan daitezkeenak.

Hezkuntza

Bretoiera irakasten duten ikastetxeek hiru eredutan sailka genitzake:

- a) **Diwan** eskolak, hizkuntzaren murgiltze-eredua praktikatzen dute eta herri ekimenetik sortuak dira 1977an, Euskal Herriko ikastolen ereduari jarraikiz.
- b) Hezkuntza elebiduneko ikastetxe publikoak, 1983tik aurrera hasi ziren eta **Div Yezh** guraso elkarteak sustatu zituen.
- c) Hezkuntza elebiduneko ikastetxe pribatu-katolikoak, **Dihun** guraso elkarteak sustatuak. Bakoitzak bere metodologia propioa jarraitzen du.

1980tik aurrera bretoieraz ikasten duten ikasleen kopurua handitu egin da, baina hazkunde hau motelagoa da azken urteotan. 80. hamarkadan %25ekoa bazen, 90. hamarkadan %17koa eta 2001-2006 bitartean %9. Joera nagusi gisa esan dezakegu Diwan ereduak gero eta ikasle gutxiago dauzkala eta besteetan aldiz gehiago. Ez da datu ona, Diwan-eko ikasleek erabiltzen duten hizkuntza-murgiltze ereduak hizkuntzaren ezagutza eta erabilera hobeagoa ahalbidetzen baitu (Académie de Rennes, 2005).

Departamentua	Bigarren Hezkuntza ikasle elebidunak
FINISTÉRE	% 4,1
CÔTES-D'ARMOR	% 2,3
MORBIHAN	% 1,1
ILLE-ET-VILAINE	% 0,2
LOIRE-ATLANTIQUE	% 0,08

Gaur egun, lehen hezkuntzari dagokionez bretoieraz ikasten duten ikasleek %5a baino gehiago izan lirateke 5 eskualdetan, %2tik 5era 6 eskualdetan eta %2tik behera gainerako 18 eskualdeetan. Departametua eta hezkuntza ereduak uztartzen baditugu ikusiko dugu Diwan eredu nagusi dela Loira-Atlantique eta Finistèren, hezkuntza publikoa Côtes-D'Armor eta Ille-et-Vilainen eta hezkuntza katoliko-pribatua aldiz Morbihanen.

Aurreikuspenen arabera 2010ean 20.000 ikasle egotea nahi zen baina 16.000 pasatxo izatera baino ez dira iritsi. Arazoa da ikasle kopuruak gora nabarmen egin dezan ehundaka irakasle prestatu behar direla. Guraso askok nahiko lukete beraien umeak murgiltze-ereduan edo eskola elebidunean matrikulatu, baina horretarako irakasle asko bere ohiko zereginetatik liberatu eta bretoiera irakasteko maila eskuratzeko adina prestakuntza eskaini behar zaie. Adibide bat jartzeagatik, 2002-2006 aldirako 120 ikasgela sortzeko adina irakasle prestatu behar zen, baina hauetatik 75 baino ezin izan dira ireki.

Bretainiako hezkuntza sisteman bada beste prozesu bat, inimizazioa edo sarbidea. Alegia, hezkuntza elebiduna aukeratzen ez duten gurasoek beraien seme-alabei bretoiera ikasten hasteko, asteko ordu bat eta hiru ordu arteko iraupena duten eskoletara apuntatzen dituzte. Fenomeno hau Finistère, Côtes-d'Armor-eko mendebaldean eta Morbihan ipar-mendebaldean ematen da eta batez ere hezkuntza lehenengo zikloetan. Sarbidea talde pedagogikoak eta gurasoak sentsibilizatzeko modu bat da. 2002an Finistèren irekin ziren 5 gela elebidun sarbide fenomenoaren ondorio zuzena izan ziren.

Bigarren hezkuntzari dagokionez, aurrez esan bezala ikasle elebidunen kopurua nabarmen txikiagoa da eta gainera azken urteotan bilakaera negatiboa izan du. 2000 urtean 7.000 ikasle baziren, 2005ean 5.150 dira. Ikasle guztiekin alboratuz gero, honelako izango litzateke departamentu bakoitzean ikasle elebidunen proportzioa:


Departamentua	Bretoiera eskatzen duen lanpostu guztien ehunekoa
FINISTÉRE	% 48,8
MORBIHAN	% 21
CÔTES-D'ARMOR	% 15,7
ILLE-ET-VILAINE	% 11,4
LOIRE-ATLANTIQUE	% 3,2

Lehen hezkuntzari dagokionez bretoieraz ikasten duten ikasleek %5a baino gehiago izan lirateke 5 eskualdetan, %2tik 5era 6 eskualdetan eta %2tik behera gainerako 18 eskualdeetan.

**Bigarren
hezkuntzari
dagokionez,
ikasle elebidunen
kopurua
nabarmen
txikiagoa da eta
gainera azken
urteotan
bilakaera
negatiboa izan
du.**

Egoera are larriagoa da unibertsitate edo goi-mailako hezkuntzan. Unibertsitatean bretoieraz eskaintzen diren ikasketak nagusiki hizkuntza honetako irakasleak prestatzera zuzendurikoak dira. Aitzitik, zientzia eta osasun arloan ez da eskaintzen bretoieraz inongo ikasketarik. Datu nagusi gisa, 2006/2007 ikasturtean Britainiako unibertsitateetan 800 ikaslelik gora ikasten zuten, batez ere bi unibertsitateetan: Goi-Bretainiako Unibertsitatea (Rennes) eta Britainia-Mendebaldeko Unibertsitatea (Brest). Bi unibertsitate hauen webgunetara jotzen badugu informazioa frantsesez eta ingelesez eskuratu ahal izango dugu, ez ordea bretoieraz.

Haur eta nerabeen hezkuntzaz landa, helduen irakaskuntza ere ematen da, bost modalitate desberdin bereiz ditzakegarik 2005/2006 ikasturtean:



Datuen iturria: l'INSEEk 1999an egindako inkesta.

Grafikoa: egilea.

Kultur dinamika

Bretainiak historikoki izan du antzerkigintza eta musikagintza tradizioa. Zalantzarik gabe esan genezake kultura ondarea hizkuntza baino hobeto kontserbatzen jakin izan duela.

Literaturari dagokionez, gaur egun bretoieraz idazten dutenak hiztun berri alfabetatuak dira eta normalean ikasleentzako testu eta liburuak argitaratzen dituzte. Horretaz landa, azken urteotan haur eta gazteen-tzako bretoieraz idatzitako narrazio sariketen loraldia izan da.

Ikus-entzutezko ekoizpenari dagokionez gehienbat dokumentalak egiten dira, oso arraroak izanik bretoieraz sortzen diren fikziozko filmak. Kon-

tuan hartu behar da, bere lana bretoieraz egin nahi duen sortzaileak zabalkundearen ikuspegitik oztopo handiak dauzkala, jarrai dezakeen publikoa oso mugatua baita. Hargatik OPLB-k sortzaileei laguntzeko hainbat ekimen abian jarri dituzte, sormen lanen itzulpenak sustatuz.

Urtero bretoieraz idatzitako 80 liburu inguru argitaratzen dira. 2000. urtean hauetako %25 umeentzako eta nerabeentzako lanak baziren, 2005ean erdiak izango dira.

Prentsari dagokionez, 2005ean *Ya!* bretoieraz idatzitako astekaria sortzea izan da arlo honetan albisterik esanguratsuena. Normalean bretoierak erabili duen formatu arruntena hilabetekaria izan da. Dena dela, guzti hauek diru-laguntzen publikoen bidez eta bertan lan egiten duten kazetarien eskuzabaltasunagatik egiten dute aurrera.

Frantsesez idatzitako egunkarietatik 10 inguruk argitaratzen dute zerbait bretoieraz, bi aipatzearren *Ouest-France* eta *Le Télégramme*.

Telebistari dagokionez 3 kanalek eskaintzen dituzte saioak bretoieraz: France 3 Ouest, TV Breizh eta TV Rennes 35.

Internet bidezko zabalkundea ere azpimarragarria da, batez ere gazteak bretoierara hurbiltzeko bitarteko aparta baita. Azken urteotan bi kanalek emititzen dute streaming bidez: An Tour Tan eta TV-Tregor. 2006ko abenduan Brezhoweb bretoiera buruzko webgunea abian jarri zen.

Irrati emisioei dagokionez, irrati-kate guztietatik %12ak soilik emititzen dute bretoieraz neurri handi baten eta %6a dira bere osotasunean bretoieraz emititzen dutenak (Observatoire de la langue Bretonne, 2007). Kontuan hartu behar da irrati-kate hauek baliabide tekniko askoz urriagoak dituztela eta alde horretatik entzuleengana iristeko mugatuagoak daudela.

Arlo ekonomikoa

2006ean OPLB-k galdetegi bat igorri zien hainbat elkarte, erakunde eta enpresei. Hauetatik %38ak erantzun zuten. Arlo publikoko erakundeen artean %20,4k erantzun zuten eta gainerako egituretakoak %49,4k. Erantzunak aztertzen baditugu esan dezakegu 2006an 900 lanpostutan behar zela bretoieraren ezagutza. Bi arlotan da esanguratsua kopuru hau, irakaskuntzan eta kudeaketa administratibo publikoan. Bestelako sektoreetan lanpostuen kopuruak iragarritzat har ditzakegu. Departamentuen arabera honelako portzentaiak eman ziren:

**Bere lana
bretoieraz egin
nahi duen
sortzaileak
zabalkundearen
ikuspegitik
oztopo handiak
dauzkala, jarrai
dezakeen
publikoa oso
mugatua baita.**

Departamentua	Bretoiera eskatzen duen lanpostu guztien ehunekoa
FINISTÈRE	% 48,8
MORBIHAN	% 21
CÔTES-D'ARMOR	% 15,7
ILLE-ET-VILAINE	% 11,4
LOIRE-ATLANTIQUE	% 3,2

Azterketa honek estimatzen zuen 2010an 1.250-1.650 lanpostu beharko zirela. Aurreikuspen baikorrena garai horretan 20.000 bretoiera ikasle aurreikusiz egin zen. Orain badakigu 16.000 inguru izan direla, beraz behetik egindako prebisioak errealistagoa dirudi.

Sentsibilizazioa

2001ean Ya d'ar brezhoneg (bretoierari bai) kanpaina abiatu zen eta 2006ko maiatzean 579 eragile sozio-ekonomiko bildu zituzten eguneroko bizimoduan bretoieraren erabilera sustatzearen alde. Aurrez esan bezala datu soziolinguistikoak oso urriak dira eta ondorioz zonalde desberdinetakoo hizkuntzaren bilakaera aztertzeko nahiko mugatuak gaude. Hurrengo urteetan azterketa gehiago eskura izanik bilakaerarren datu zehatzagoekin lan egin eta azterketa sakonagoak egin ahal izango dira.

OPLBk 2007an egindako txostena erabili dugu oinarri gisa, baina horretaz aparte bestelako informazio apurren bat ere eskuratu dugu. 2012an erakunde honek berak Carhaix udalerrri eta Komunari (Finistère-ko ekialdean dago eta guztira 8.000 biztanle inguru ditu) inkesta bat egin zuen eta bertan jasotako datuak Behe-Bretainiarako 2007an egindako beste inkesta batzuen datuekin konparatu ditugu (TMO – Regions, 2009).

Datuak	Carhaix 2012	Behe-Bretania 2007
EZAGUTZA OSOA	% 33	% 13
ULERTU EGITEN DU	% 40	% 22
EZAGUTZA 10-19 URTE ARTEAN	% 19	% 4
EZAGUTZA 20-39 URTE ARTEAN	% 5	% 2
BRETOIERA ERABILGARRIA DA	% 56	% 45

Datu hauek argi erakusten dute Carhaix batzbestetik oso goitik dagoela. Beste udal eta entitate administratiboentzako eredugarri izan beharko luke eta horrela bakarrik ahalbidetuko litzateke benetako normalizazioa abian jartzea. Beste bi datu emango ditugu, 10-19 urte bitartean Carhaixeko gaztetxo elebidunen artean %84 bretoieraz alfabetatua dago eta 40 urtetik behera bretoiera ikasi duen %40ak eskolan ikasi du. Gainera eta konparazio bat egiteko, Britainia osoan 1999ko l'INSEEko inkestak bretoiera batez ere nekazaritzan eta artisautzan indartsu zegoela esaten bazuten ere, Carhaixen ez da horrela. Lanbide eta jardunbide guztietan oso kopuru orekatuak ematen dira, eta azpimarragarria da, adibidez profesio liberaletako %33a mintzo dela, langileen %20 eta merkatarien %14a. Beraz, Carhaixen bretoiera hiztuna gaztea, urbanoa eta jantzia da. Berririo diot etorkizuneko ezinbesteko erreferentzia izan beharko lukeena.

3.2 Etorkizunerako aurreikuspena

Zaila da etorkizunean zer gertatuko den aurrikustea. Datuak gutxi dira, baina esku artean ditugunak izanik, ezin gaitezke baikorregiak izan. Goazen horietako batzuk aztertzen.

Joshua Fishmanek esango du mehatxupearan edo arrisku larrian dauden hizkuntzei laguntzeko edozein ekarpen teoriko eta praktikok, lehendabizi hizkuntzaren funtzioei buruzko diagnosi egoki bat egin behar duela. Lehenbizi hizkuntzaren funtzionaltasunaren galera ulertu behar da, gero zehaztu eta zuzentzen saiatzeko. Proposatzen du galera prozesuei aurre egiteko, hizkuntzaren komunitatea bere baitan biltzearen alde egiten du. Fishmanek esango du komunitatearen barne babesik gabe ez dagoela hizkuntza bat indarberritzerik. Funtsezkoa da komunitate horrek hizkuntza indarberritzeko arnasmune izango diren espazio fisikoak sortzea. Ekimen hau sustapen instituzionalaren aurretik finkatuko du.

Arnasmune izateko baldintzak eskualde eta herri gutxitan ematen da. Datuak erakusten dutenez, ehunekotan oso hiztun kopuru urria du bretoierak ia eskualde gehienetan, oso edadetuak gainera eta beraz dinamismo gutxi agertzen dutenak. Salbuespen gisa Carhaix-en datu sozio-linguistikoak izan daitezke. Bertako herritarren heren batek bretoiera daki eta gainera ezagutza maila nahiko altua da gazteen artean ere. Miquel Grosi Lladós soziolinguista katalanak %30 – 40 bitarteko hiztunak dauzkaten lurraldeetan hizkuntza sendo dagoela esango du, oso sendo egoteko %40tik gora izan beharko lukete. Beraz, Carhaix adibidez nahi eta nahi ez arnasmune ez dakit baina aitzindari izatera deitua dago. Abstrakzio bat eginez, euskara hiztun kopurua ehuneko horretatik gora legoke

**Arnasmune
izateko
baldintzak
eskualde eta
herri gutxitan
ematen da.**

**Salbuespen gisa
Carhaix-en datu
sozio-
linguistikoak
izan daitezke.
Bertako
herritarren heren
batek bretoiera
daki eta gainera
ezagutza maila
nahiko altua da
gazteen artean
ere.**

**Arazoa
kuantitatiboa da,
alde
kualitatibotik
baliabideak
garatzen badoaz
ere, momentuz
baliabide horien
erabilpena oso
urria da eta
ematen du
etorkizun
hurbilean ere
horrela izango
dela.**

Errenteria eta Irunen, Gipuzkoan (Eusko Jaurlaritza 2013). Oso adibide grafikoa da, Britainian indargunea osatuko luketen herriek Gipuzkoako herri erdaldunen kopurutik behera mugitzen dira. Horrek erakusten du bretoieraren eta euskararen egoera gaur egun parekaezinak direla.

Bretoieraren aldeko jarrera badago, arestian aipatu gisa %92an zenbatu daiteke. Horretaz gain hainbat eragile sozial eta ekonomikok turismoa eta eskualde garapena sustatzen ari dira bertako kulturaren ezaugarriak ardatz harturik. Alegia, Britainia bertatik garatu behar dela defendatzen dute eta ez Pariseko edo beste metropoli bateko sukurtsal gisa. Hala ere, erregionalizazio hau ezin dezakegu hizkuntza normalizatzeko nahikoa denik pentsatu. Agian turismorako label gisa balio dezake baina hizkuntzaren berrindartzean izan lezakeen ahalmena oso mugatua da. Joshua Fishmanen hitzak erabiliko ditugu berriz “Hizkuntzaren ‘heriotza sozialerako bidea’ jarrera positibo deritzan asmo onez hasten da” (Fishman 1991).

Bretoieraren galeraren eragile nagusia transmisioaren etena izan da. Maila teorikoan Fishmanek fenomeno hau aztertu (1991) eta neurtzeko zortzi mailako eskala bat proposatu zuen (GIDS: Graded Intergenerational Disruption Scale). Sailkapen honetan 8. mailak eten erabatekoa islatzen du eta 1. maila ordea transmisiorik egokiena.

Bretoieraren kasuan 7. mailan egon gaitezke: “hizkuntzaren erabiltzaile gehienek harreman sareak dauzkate eta etno-linguistikoki aktiboak dira. Baina haurrak izateko adina pasatu dute”. Maila honetan egonik funtsezkoena haurrei hizkuntza irakasten hastea da. Horretan hasiak dira Britainian eta beraz 5. mailako ezaugarri batzuk ere betetzen dira, alegia, posible dela komunitatean eta eskolan hizkuntza txikian alfabetatzea botere publikoen inolako babesik gabe. 4. mailan botere publikoek hizkuntza txikia babesten dute, lehen hezkuntzan batik bat. Egiari zor, oso maila txikian bada ere hezkuntza publikotik ere bultzatzen da bretoieraren irakaskuntza. Beraz, eskala hau aintzat hartuz bretoiera ez legoke transmisioaren ikuspegitik hain gaizki. Arazoa kuantitatiboa da, alde kualitatibotik baliabideak garatzen badoaz ere, momentuz baliabide horien erabilpena oso urria da eta ematen du etorkizun hurbilean ere horrela izango dela.

Etorkizunari begira jarraituz, Office Public de la Langue Bretonne (OPLB) erakundeak 2007an egindako txostena prospekzio moduko bat egiten da. Lehenbizi esaten da, hurrengo hamarkadetan hiztun kopurua gutxituz joango dela, hori saihestezina da. Urtero 6.000 – 6.500 hiztun

inguru hiltzen dira, gehienak edadetuak eta alfabetatu gabeak. Urtero bretoiera berenganatzen duten gazte eta helduak nabarmen gutxiago dira, eta joera hau hainbat urteetan oraindik mantenduko da. Alegia hiztun kopurua beheraka joango da eta hauetatik alfabetatuak geroz eta gehiago izango dira. Aurreikuspenak hiru mailako hipotesiak egin zituen:

1) Demagun eskoletan bretoieraren irakaskuntza oso erritmo motelean hasten dela eta bizitza sozio-ekonomikoan bere erabilerak hutsaren hurrengoia izaten jarraitzen duela. Gaur egun hezkuntza elebidunean ari diren %80k hizkuntza galduko dutela. Dinamika honi jarraikiz, 2060 urtera arte bretoierak hiztunak galtzen jarraituko du. Urte horretan hiztun kopurua 20.000 inguruan mantenduko da. Aurreikuspen honek XXI mendearen bukaeran bretoieraren biziraupena kinka larrian jartzen du.

2) Demagun hezkuntzan bretoieraren irakaskuntza motel baina modu onargarrian aurrera doala. Urtero hizkuntza menperatzen dute 400 hiztun berri dauzkagula. Kasu honetan 2050 urtera arte hiztunak galtzen joango lirateke eta hortik aurrera hiztun kopurua handitzen hasiko litzateke, XXI mende hondarrera 70.000 hiztunekin iritsiko ginatkeelarik.

3) Demagun hezkuntza bretoieraren irakaskuntza erritmo onean hazten dela. Erakunde publikoek apustu garbia egiten dutela bretoieraren irakaskuntzaren alde eta ikasle elebidunen %75ak hiztun izaten jarraitzen duela helduak direnean. Bizitza pribatu eta harreman sozialetan presentzia indartuz doa eta transmisioaren portzentajeak apurka bada ere gorantz doazela. 2040 urtera arte hiztunak galduko lirateke 90.000 iritsi arte eta hortik aurrera hiztunak irabazten hasiko litzateke. Joera honi jarraikiz XXI mende bukaeran mende hasieran adina bretoiera hiztunak izango genituzke, 200.000 inguru.

Erdiko aurreikuspena aintzat hartzen badugu eta 2050 urtean kokatzen bagara 50.000 hiztun izango genituzke, ordurako Britainia historikoak ia 5 milioitako populazio izango duela aurreikusten da. Beraz, bretoieraren hiztunak %1a izango dira eta proportzio baxua izanik oso eragin ahula izango duela pentsa dezakegu. Hala ere, erabat alfabetatua izango den %1 horrek hizkuntza suspertzeko asko eraginkorragoa izan daiteke 250.000 izatea baino, horietatik %90a alfabetatu gabeak badira.

Txostenak esaten du ere laugarren aurreikuspen baten aldeko apustua egin behar litzatekeela. Carhaix-eko ereduari jarraikiz aurrekontu publikoetan bretoierari eskainitako kopurua nabarmen handitu beharko litzateke, hezkuntzan, hedabideetan eta plazan hizkuntzaren erabilera

**Aurrekontu
publikoetan
bretoierari
eskainitako
kopurua
nabarmen
handitu beharko
litzateke,
hezkuntzan,
hedabideetan eta
plazan
hizkuntzaren
erabilera
bultzatuz eta lan
arloan presentzia
izan dezan lan
eginez.**

bultzatuz eta lan arloan presentzia izan dezan lan eginez. Modu horretan soilik izango da posible bretoieraren indarberritzea eta Gales eta Hego Euskal Herrian ematen ari diren prozesuekin parekatzea. ●

BIBLIOGRAFIA

- Académie de Rennes (éd.), 2005, "Evaluation de la langue bretonne dans les classes de CM2 des filières bilingues (Enseignement public, Enseignement catholique, Ecoles Diwan) – Resultats et analyse". Rennes, 58 pages.
- Argia, 2003, "Seme-alabek ez dute bretoiera ikasten", 1882 zbk.
- Baron, Y, 2010, Livret du Colloque international à l'Institut de Locarn, "Autor de nous: Le monde change vite" 12 et 13 juin 2010.
- Bolinaga Iñigo, 2012, La alternativa Garat. El proyecto napoleónico de crear un Estado Vasco. Txertoa.
- Calvet, J.L.; 1987, *La guerre des langues. Et les politiques linguistiques*, Payot, Paris.
- Costa, Karina; Sánchez Julio, 2012; Letras 52 "La situation politico-linguistique des langues régionales de France: le cas du breton".
- Eusko Jaurlaritz, 2013, V. Inkesta soziolinguistikoa (2011), Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen zerbitzu nagusia, Vitoria-Gasteiz.
- Ethnologue.com, <https://www.ethnologue.com/language/bre>, kontsulta 2016-06-17.
- Fishman, Joshua, 1991, "Reversing Language Shift", *Multilingual Matters*, Clevedon.
- , 2001, "Can threatened languages be saved? Reversing Language Shift", *Revisited Multilingual Matters*, Clevedon.
- , 2002, "Why is it so hard to save a threatened language", *International Conference on Minority Languages*, 1999, Bilbao. "Hizkuntza biziberritzeko saioak: eremu urriko hizkuntzei buruzko VII Nazioarteko Batzarra", Eusko Jaurlaritz.
- Gros i Lladós, Miquel, 2009, *El euskera en la Comunidad Autonoma Vasca* (2009). *Una apuesta por la diversidad lingüística*, Euskaltzaindia.
- INSEE (éd.), 2002, Côtes-d'Armor, Atlas démographique départemental. Rennes, 34 pages.
- , 2002, Finistère, Atlas démographique départemental. Rennes, 34 pages.
- , 2002, Ille-et-Vilaine, Atlas démographique départemental. Rennes, 34 pages.
- , 2002, Morbihan, Atlas démographique départemental. Rennes, 34 pages.

- INSEE Bretagne (éd.), 2003, *L'espace breton. Les dossiers d'Octant*, Rennes, 45, 152 páginas.
- Manterola, Ibon; Berasategi Naiara, 2011, *Hizkuntza gutxituen erronkak*, UEU.
- Meriadeg, Vallerie, "Paralelismos entre los desafíos medioambientales y la recuperación lingüística: el caso de la lengua bretona", <https://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/.../Meriadeg%20Vallerie.pdf>. Kontsulta 2016-06-15.
- Observatoire de la langue Bretonne, 2007, *La langue bretonne, à la croisée des chemins. Deuxième rapport général sur l'état de la langue bretonne*
- Observatoire de l'opinion 2014. *Le critère linguistique*
- Odriozola, Joxe Manuel, 1987, "Bretoiera azken arnasaldiaren hondarean". *Zutabe* 15.
- Office Public de la Langue Bretonne, 2014, *Sondage Conseil départemental du Finistère*.
- :<http://www.fr.brezhoneg.bzh/4-histoire.htm>, kontsulta 2016-06-13.
- Rubio Caballero, Jose Antoino, 2013a, "Entre Ranke y Merlin. El bretonismo político y su historiografía romántico-positiva", *Historia Actual On-line*, 30, 25-38.
- Rubio Caballero, Jose Antoino, 2013b, "Nazismo alemán y Emsav bretón (1933-1945): Entre la sincera alianza y el engaño recíproco", *Historiografías*, 5 (Enero-Junio, 2013), pp. 71-93.
- TMO-Régions, 2009, *Parler bretonne au XXIème siècle – Le nouveau sondage de TMO-Régions*, Farich Broudie – *Emploie Breiz* – (2007), 208 páginas.
- Wikipédia, <https://fr.wikipedia.org/wiki/Breton>, kontsulta 2016-06-17.